

## MERKATUAREN-SEGMENTAZIOA

Gure aplikazioa bereziki ikusmen urritasuna duten pertsoneri zuzenduta dago, baina edonork erabili dezake nahi izanez gero. Beraz, bi talde nagusi bereizi ahal dira: alde batetik, ikusmen urritasuna dutenen taldea, eta bestetik, ikusmen urritasuna ez dutenak edo gainontzeko biztanleria.



Gure proiekturako merkatu segmentazioa egiteko irizpide hauek kontuan hartu ditugu:

Ikusmen urritasuna dutenen taldeari dagokionez, azpi-talde ezberdinak bereizi ahal dira ikusmen mailaren irizpidea jarraituz:

- **Itsutasun osoa:** pertsona hauek ez dituzte ikusmen-arrastorik, hau da, ikusmen osoaren galera pairatzen dute.
- **Itsutasun ia osoa:** Kasu honetan ikusmen arrastorik badute, baina ez dira oso baliagarriak, soilik argiak eta koloreak ikusteko gaitasuna baitute.
- **Itsutasun partziala:** Itsutasuna bezala ezagutzen da, baina ikusmen hondarrak badituzte; argiaren bidez orientatzeko eta masak hautemateko gaitasuna dute.

- **Ikusmen urritasun larria:** pertsona hauek soilik bolumenak eta koloreak zehazteko gai dira.
- **Ikusmen urritasun moderatua:** Kasu honetan gaitasuna dute pixka bat irakurtzeko, eta gai dira mapak eta eskemak ikusteko.



Esan beharra dago ikusmen urritasunaren barruan, mota desberdinak bereizten direla:

- **Jaio aurrekoak:** Amaren sabelean gene, mutazio edo malformazio baten ondorioz gertatzen da.
- **Jaio ingurukoak:** Erditzean arazoak direla edo pertsona goiztiarra izan bada gertatzen da.
- **Jaio ondorengoak:** Traumatismo edo infekzioen ondorioz gertatu liteke.
- **Itsuak:** Ez dute ezer ez ikusten.
- **Anbioplikoak:** Zerbait ikusten dute.



- **Miopia:** Pertsona urrunetik gaizki ikusten du.
- **Astigmatismoa:** Irudi bat ikusi beharrean bi eta zirriborrotsuak ikusten dituzte.
- **Hipermetropia:** Pertsona hauek gertutik gaizki ikusten dute.

Ikusmen urritasuna ez dutenen taldean ere azpi-talde ezberdinak bereizten dira irizpide sozio-demografikoaren arabera. Irizpide sozio-demografikoaren barruan honako hauek kontuan izango ditugu:

- **ADINA:** Adina kontuan hartuz bereziki gazteei zuzenduta egongo da, izan ere, gazteen gehiengoa teknologia berriak inolako arazorik gabe maneiatzeko gai dira. Hala ere, geroz eta gehiago dira teknologia berriak maneiatzen dituzten helduak eta adinekoak.
- **IKASKETA MAILA:** Aplikazioa erabiltzeko ezinbestekoa izango da teknologia berrien inguruko gutxieneko ezagutzak izatea.
- **DIRU-SARRERAK:** Super-app erabili ahal izateko beharrezkoa da oinarri teknologiko bat izatea, hala nola, mugikorra, tableta etab. Oinarri teknologiko hori eskuratzeko baliabide ekonomiko nahikoak izan behar ditu.

Irizpideak kontuan hartuta, beharrei erantzuteko gure aplikazioak ondorengo egokitzapenak izango ditu:

- Letra tamaina handia
- Ahots bidezko orientabideak